


Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, 2020ko apirilaren 5eko hauteskundeetako parte-hartzearen gaineko Agindu Proiektuari buruz

**LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES**



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, LAN ETA JUSTIZIA SAILBURUAREN AGINDU PROIEKTUARI BURUZKOA; AGINDU PROIEKTUAK ARAUAK EMATEN DITU LANGILEEK, DAGOZKIEN ORDAINSARIAK JASOTA, 2020KO APIRILAREN 5EKO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN PARTE HAR DEZATEN

Aurrekariak

2020ko otsailaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren baitako Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak idazki bat helarazi zuen Lan Harremanen Kontseilu honetara; idazkian jasota dator Lan eta Justizia Sailburuaren Agindu Proiektua, zeinak arauak ematen dituen langileek 2020ko apirilaren 5eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten.

Agindu Proiektuaren testua Lan Harremanen Kontseiluko Txostenen Batzordeko kideei helarazi zitzairen eta 2020ko otsailaren 20ko bileran jorratu zen.

Agindu Proiektuaren testuari buruzko iritzia

Txostenean jorratzen den Agindu Proiektuaren testuak errepikatu egiten du, besterik gabe, Eusko Jaurlaritzan dagokion Sailak helburu berberarekin lehenago emandako beste arau batzuen edukia.

Honen aurreko proiektuen harira ere Lan Harremanen Kontseiluak eman izan ditu kasuan kasuko txostenak, eta bertan, sindikatu eta enpresaburu erakundeek izendatutako Txostenen Batzordeko kideen iritzia jasotzen ziren.

Ikusirik gaur egungo arauaren testuaren eta haren aurretik izan zirenen arteko berdintasuna, LHK-ko Txostenen Batzordeak gai honen inguruan txosten horietan esaten zuena errepikatu nahi du oraingoan ere.


Bada, 2020ko otsailaren 20an egindako bileran jarraian ematen dugun txostena onartu zen:

Txostena

Kontseiluko kideek beren adostasuna adierazten dute Agindu proiektuaren testuarekin, alegia, langileek, dagozkien ordainsariak jasota, 2020ko apirilaren 5eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte har dezaten arauak

**Lan Harremanen Kontseiluaren
txostena, 2020ko apirilaren 5eko
hauteskundeetako parte-hartzearen
gaineko Agindu Proiektuari buruz**

**LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES**



ematen dituenarekin, honako puntu honetan izan ezik:
enpresaburuen erakundeak izendatutako kideen iritzian,
ordaindutako baimena bakarrik aitortu behar litzaieke
langileei beren lan-jarduna eta hauteskunde-kolegioen
irekitze-ordutegia lau ordu edo gehiagotan bat datozenean.

Bilbon, 2020ko otsailaren 20an.